

DESPUZZTUTAKO BALOIARI

Urki Bilbao

Ondarroa, 14 urte

I

Nire gelako armairu baten
nor ta zu topa beharra
lehen zenuen distira gabe
despuztuta eta zaharra
nahigabe, gordin, etorria zait
begietara negarra
zu zaitut eta gomutetatik
bizirik zauden bakarra.

II

Gaur egun nahiz ta nik baditudan
hainbeste urte aldean
ederto asko gogoratzen naiz
nire gaztaro denean
zerbait despuzten hasia zara
nire barren-barrenean
nire umetako oroitzapenak
ekartzean bat-batean

III

Biribil zara eta baduzu
munduaren itxurarik
zuria eta beltza zaitugu
begiratuaz hemendik
justu kontrako muturrak diren
koloreak ez besterik

baina mundua bezala zaude
aire ugariz beterik.

IV

Sei urte egin nituenean
opari zintudan izan
ta egunero ibiltzen nintzen
zugaz futbolista gisan
zu ikusiaz kulpazkoa den
sentimendu bat dut jasan
eman nizkizun hainbat ostiko
jaso baititut bizitzan.

V

Ni gaztaroko denbora haiez
gaur jarri naiz gogoratzen
nahiz bakarrik ta nahiz lagunekin
zurekin ibiltzen nintzen
zenbaitzuetan ate barrura
joanagatik hain zuzen
beste batzuetan neure antzera
zuk ez zenuen igartzen.

VI

Ni futbolecan ibiltzen nintzen
ezin harturik atsedean
lagunek uko eginagatik
zu hortxe egoten zinen
nahi baino leiho eta farola
gehiago apurtu arren
txiki nintzela zuk niretzako
zenbat balio zenuen.

VIII

Nik hainbat amets eduki nuen
praka motzetan nintzela
izan nahi zuen futbolista bat
bertsolaria bestela
baina oraintxe konturatu naiz
gauzak zailago direla
zu despuztuta baitzaude orain
nire ametsak bezala.

VIII

Gogorarazten lagundu arren
nire garairik onenak
ezin ditzaket gehiago jasan
sortu dizkidazun penak
eman dizudan ostiko batek
lasaitu dizkit barrenak
errekan behera bidali ditut
nire oroitzapen denak.